

ABERRI EGUNA 2005



UDALBILTZA[®]
EUSKAL HERRIKO UDAL ETA HAUTETSIEEN BILTZARRA

EUSKAL LURRALDEAK ELKARTUTA BERE ETORKIZUNAREN JABE

Baztan, Amaiurko monolitoan

Euskal Herriko lurralde guztietako hautetsiok hemen bildu gara gaur, Amaiurren, bere Gaztelua defendatu zutenen omenez, haiek izan baitziren Nafarroako Erresumako azken defendatzaileak. Bada, hemen bildurik, Aberri Eguna ospatuko dugu mezu hau lau haizetara zabaltzeko: lurralde bakoitzeko euskaldunok enbor bereko ezpalak gara, elkarren arteko nortasuna dugu eta etorkizun berberean izan nahi dugu partaide. Alegia, bakean eta errespetuan oinarritutako etorkizuna nahi dugu, betiere bizikidetzan beste herri batzuekin. Azken buruan, guk geuk eraiki nahi eta behar dugun etorkizuna.

Euskal hautetsiok, oroitari xume bezain esanguratsu honen aitzinean, UDALBILTZA[®]ren izenburupean bildurik, hauxe aldarrikatzen dugu, zazpi lurraldeetan finkatua dagoen herriaren ordezkari garen aldetik:

- ✓ Borondate nabarmena dugu, gure etorkizuna eraiki eta erabakitzeke.
- ✓ Erabateko borondatea dugu, gure hizkuntza, gure nortasuna eta euskal kultura indartzearen alde lan egiteko.
- ✓ Borondate argia dugu, bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizunaren alde lan egiteko, bai eta gainontzeko herriekin bakean bizitzeko ere.

Halaber, agertu nahi dugu Euskal Herriarekin dugun konpromisoa, Euskal Herriarekin dugun kontratu soziala.

Jakin badakigu gaur egungo garaiak gure Herriaren etorkizunarentzat izanen duen garrantzia historikoa. Hori dela eta, bi oinarriotan eraikitako etorkizuna erein eta aldarrika dezagun. Hona hemen: biziaren errespetua eta Euskal Herriak erabakitzeke duen eskubidearen errespetua.

Horrenbestez, Estatuari eskatzen diogu elkarrizketa eta negoziazio bideari ateak ireki diezazkion, betiere Euskal Legebiltzarrean gehiengo osoz onetsitako Estatutu Berriaren Proposamenean oinarriturik, hori funtsezko lanabesa baita normalkuntza politikorako, bai eta erantzun egokia ere, euskal herritar gehienek normalkuntza eta bake nahientzat.

Guk euskal gizarteari tatxarik gabeko oinarri etikoak eta demokratikoak eskaintzen dizkiogu, eta eskaini, halaber, bide argi eta zehatza, indarrean dagoen Proposamen politikoa, gure konpromisoak betetzeko berme sendoa eta etorkizuneko proiektua, Euskal Herriaren eraikuntza sozialean aurrera jotzen segitzeko. Bizikidetzarako proiektu sendoa defendatzen dugu, lana eskaintzen dugu, bai eta gogoia eta borondatea ere.

Etorkizun baketsua defendatzen dugu: Gure konpromisoa agertzen dugu gizon-emakume guztien giza eskubideak defendatzeko eta, ondorioz, berriz ere ETari eskatzen diogu, indarkeria behin betiko bazterrean utzi eta gizarteari hitza eman diezaion.

Gure konpromisoa agertzen dugu borondate hori errespetatzeko, euskaldunon borondatea, Euskal Herrian gaur egun bizi garen eta lan egiten dugun guztion borondatea, inor bazter utzi gabe. Erabakitzekeo garaia da.

GORA EUSKADI ASKATUTA

Amaiurren, 2005eko martxoaren 27an